



GABONAK
2023
gehigarri berezia





Peregrinus

Peregrinus

Garagardotegia

•Plater konbinatuak •Sandwichak •Hanburesak •Pintxoak



• Kafeak eta opilak
• Eguneko menuak

CAFE BOULEVARD JATETXEA



txinparta

SAGARDOTEGIA
JATETXEA



Razioak, pintxoak, bokatak eta eguneroko menua.

Urbil merkataritza gunea

BADATOSZ MARI DOMINGI ETA OLENTZERO

Badatosz galtzeko arriskurik gabe, bidea ondo baino hobeto ezagutzen baitute. Asteburuan helduko dira Mari Domingi eta Olentzero gure artera. Etxez etxe opariak banatzen gaupasa egin aurretik, kalejiran ikusiko ditugu. Izan ere, harrera bana antolatu diete Aginagan eta Usurbilen. Lehen geltokia, Aginagan egingo dute. Larunbat arratsaldeko 18:00etan ikusiko ditugu Sekaño eta Mitxerkoenea ingurutik behera. Bidelagun izan nahi duten herrikide guztiekin Eliza Zaharrerainoko bidea osatuko dute eta han, eskariak egin eta ilusioa eta magia ekarriko diguten pertsonaiekin egoteko aukera izango da.

Biharamunean, Usurbilen txanda. Aginagako biraren ostean, abenduaren 24an, arratsaldean Kalezarrera heldu eta handik Usurbilera jaitsiko dira. Aurreko urteen ildotik, Egurtzegi paretik Kalezar erdigunera helduko dira. Auzoa alderik alde zeharkatu eta Aliprox pareko biribilgunera jaitsiko dira. Ibilbidea ez dute noski, bakarrik egingo. Herritarrez inguratu ziu, baina bidelagun gehiago ere izango dituzte aurreko urteen antzera. “Olentzero eta Mari Domingi etorriko dira galtzagorri, joaldun, adar-jole eta trikitilarien laguntzarekin”, iragarri du



Olentzero eta Mari Domingiri harrera bana antolatu diete Aginagan eta Usurbilen.

antolakuntzak.

Handik Eguzkitzaldea eta Artzabal inguruetatik igaro ostean, Mikel Laboa plazarantz etorri eta handik Dema plazan sartuko dira, harrera ekitaldi nagusirako. Izango dute mezurik han bertaraturikoentzat. Eta nola ez, haiengana gerturatzeko aukera izango dute txikienek. Antolatzaileek aurreratu dutenez, “plazan, umeek Olentzero eta Mari Domingirekin argazkia ateratzeko aukera izango dute”.

Une horretan, “haurrak agurtu, haien

nahi eta eskaerak entzun, eta mendira itzuliko dira gauean etxe guztietara iritsi ahal izateko”.

Lankidetzan

Igandeko kalejira bideratzea auzolanaren emaitza da Usurbilen. Antolakuntza lanetara batu dira Usurbilgo Udala, hainbat herrikide eta eragile ere; tartean, aipatze-koak, galtzagorrien azalean sartuko diren gaztetxoak edota haien gurasoak, baita prestaketa lanekin bat egin duen gazte belaunaldia ere.

POSTONTZIAK, PREST

Antolakuntza talde zabala dago Mari Domingiri eta Olentzerori larunbatean egingo zaion harreraren atzean. Prestaketa lan betearen aritu dira asteotan.

Baina adi, herritarrok ere badugu alde aurreko etxekolanik igandeko kalejiraren atarian; oparitan jaso nahi ditugun eskarien zerrenda prestatzea esaterako.


Adi, iragan astetik postontziak jarriko dituzue herriko hainbat guneean. Gutuna idatzi eta etxola hauetan utzi ahaliko dituzue.

GABONETAKO HAUR PARKEA

Eguberriak opor egunak izan ohi dira gaztetxoentzat. Aisialdirako denbora gehiago izango dutenez, entretenimendu polita aurkituko dute Oiardo kiroldegian. Abenduaren 26tik 28ra, Gabonetako Haur Parkearen egoitza nagusia izango da.

Goizez eta arratsaldez zabalik

Haur Parkea 2-12 urte bitarteko gazte-xoei zuzenduta egongo da eta hiru egun hauetan egongo da martxan: abenduaren 26, 27 eta 28an, biak barne. Goiz partean 11:00-13:00 bitartean, eta 16:30-19:30 bitartean arratsalde partean.



Goizez 11:00-13:00 bitartean egongo da zabalik. Eta arratsaldez, 16:30etik 19:30era.

ZORIONAK **Cambridgeko** azterketak gainditu dituzuten guztioi !



Cambridge ESOL
Exam Preparation Centre


tobyngana
english SCHOOL

Advanced CAE

Asier Renedo Ramos
Iker Niño Eizagirre
Irati Indacochea Liceaga

First Certificate FCE

Aritz Urkido Aristizabal
Elur Zaldúa Elortza
Eneko Eizagirre Camino
Iker Zuloaga Liceaga
Janitz Izeta Korta
Julen Obregozo Pelaez
June Labaka Zubimendi
Lucia Rodriguez Roman
Miren Maren Sasiain Ortuñez
Nahia Azpiazu Zubeldia

PET

Amane Mei Otaegi Perez
Joana Lerchundi Beristain



Merry Christmas
and Happy New Year!

GAZTELEKUTIK TXURI URDINERA

Gaztelekukoen artean ohiko hitzordua izan ohi da, urtero-urtero errepikatzen duten horietakoa: Donostiako Txuri Urdinera irteera. Aurtengo bitan joango dira: abenduaren 28an eta urtarrilaren 4an, eta arratsalde partean, 16:00etatik 21:00etara.

Gurasoen baimena behar da

Hitzorduotan parte hartzeko guraso baimenak behar dira. Gaztelekuan aurkeztu behar da agiria. Informazio gehiago jasoko duzue telefonoz (688 813 853) edota e-posta bidez, ondoko helbidera idatziz: gaztelekuausurbil@gmail.com




Arratsalde partean joango dira Txuri Urdinera. 16:00etatik 21:00ak bitartean.



Ondo pasa gabonetan!

Txotxetik sagardoa jarraitu usadioa!



Santuenea,
Telf: 943 36 50 31

SAGARDOTEGIA

AIZPURUA OKINDEGIA

**OGIAK
GOZOGINTZA
TARTAK
ARDOAK**



Festetan zure mahaia ondo hornitu nahi baduzu, gurean baduzu aukera!

KALE NAGUSIA, 25 • 943 36 12 20

NOAUA! GEHIGARRI BEREZIA
herriko taldeak

ZIORTZAKOEK ESKUBETE LAN

A te joka ditugun neguko ospakizunei hasi bezala emango diete amaiera Ziortza gazte elkarte-koek; eskubete lanekin. Bi ekimen presatzeko lanetan aritu dira azken asteotan.

Hasteko, ostiral honetan, abenduaren 22an, 18:30ean hasita Askatasuna plazan, San Tomas eguna ospatuko dute.

Horrez gain, nola ez, urtarrilaren 5ean erregeei harrera egiteko antolakuntza lan betean dira Ziortzakoak. Kabalgatarako nondik norako guztiak lotuta izango dituzte Meltxor, Gaspar eta Baltasar etorzen direnerako. Kabalgata jendetsua, aipatu moduan, hilaren 5ean ospatuko da.



Ostiral honetan, abenduak 22, San Tomas eguna ospatuko dute. 18:30ean hasita, Askatasuna plazan.

Auto Guria s.l

Auto Guria
Mobil Service

Auto Konponketa
Pre I.T.V.
Marka guztiak

943 363 298

Zelai-haundi 11, Osinalde Pol. USURBIL

Ondo pasa gabonetan!

guria

taberna

abenduak 24 eta 31
20:30tan itxiko dugu
abenduak 25 eta urtarrilak 1
14:30tan itxiko dugu

PUNTAPAX 12, USURBIL 943 55 93 35

ANTONIO URRUZOLA AROSZTEGIA

Zorionak eta
urte berri on!

Tel.: 943 376 415

Faxa: 943 360 510

Asteasuain Industrialdea, 3.

G15 GIPUZKOA
HIGIEZINA
ELKARTEA

Ondo pasa
Gabonetan!



HIGIEZINA | INMOBILIARIA

SALEROSKETA & ALOKAIUA

Zugandik GERTU behar duzun GUZTIRAKO

688 739 733 info@g15usurbil.eus
Etxebeste Kalea 15 - USURBIL

 **Inaki
Iturgintza**

Ondo pasa
gabonetan!!!

- BEROKUNTZA • GASA
- AIRE EGOKITUA
- ZORU BERO-EMALEA
- ITURGINTZA
- ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

600 024 825

info@inakiiturgintza.com--www.inakiiturgintza.com

mur
errotuluak

Ibilgailuak - Erakustokiak - Lonak
Argidunak - Inpresio digitala

943 36 60 21 - USURBIL

info@murerrotuluak.com - www.murerrotuluak.com

KULTUR SORKUNTZAREN UZTA OPAROA

U surbil herri sortzailea dela argi uzten duen albistea segidan. Sorkuntza uzta oparoa ekarri digu agurtzear dugun 2023ak ere. Aurtengoan bereziki literatura sorkuntza nagusitu da usurbildarrek plazaraturiko lanetan, ondoko argazkian ikus dezakezuen moduan. Sutegi udal liburutegiak egin duen lanon bilketan musikagintzari lotutako lan bakarra dugu aurtengoan; 2014an osatu zen **Rukulak** 'Traganarru' izeneko hirugarren diska berria kaleratu du.

Gainerakoan, irudi nahiz testuez hornituriko liburuak ditugu. Hiru argitalpen kaleratu ditu aurtengoan **Ixabel Agirresarobek Iñaki Martiarena Mattin** ilustratzailearekin batera; Amona Tomaxaren abentura berriak 'Udazkenean', 'Primi eta Maurizia: larru marruak' eta berriki aurkeztu duten 'Remigioren Udarregi: Txulotik'.

Jakoba Errekondoren bi argitalpen ere (bat falta da argazkian) Usurbilgo 2023ko sorkuntza uztaeren baitan ditugu: '2023 ilargia eta landareak: urteko lanen agenda' eta '2023ko ilargiaren egutegia' (2024koak aurkeztu berri ditu Durangoko Azokan).

Yolanda Arrieta Malaxetxebarriak 'Mari Gonagorri eta hamazazpi berri', Agirresarobek berriki egin bezala, jen-



Sutegi udal liburutegiak egindako bilduman disko bakarra ageri da, Rukularen 'Traganarru'.

2023KO UZTA

Aurtengoan, literatura sorkuntza nagusitu da usurbildarrek plazaraturiko lanen artean

daurrean aurkeztu zuen argitalpena ere hortxe dugu 2023ko uzta honetan, baita

berriki 'Ni ez naiz Mikel Laboa' argitalpenagatik saritu duten **Joseba Larratzek** 'Joseviskyk' marraztutako Larrun aldizkariko azalak eta **Izaro Artoitaren** 'Lina Plastilina: istripu handia' liburuari erantsi dion irudi bilduma.

Ilustrazio lanei buruz ari garela, denetarik; poesia, ipuin laburrak, marrazkiak... biltzen dituen DA proiektu kolektiboaren argitalpena ere plazaratu da aurtengoan.

BILDUMA OSOA SUTEGIKO ERAKUSTARETOAN IKUSGAI

Urteko errepassoaz ari garela, 'XXI. mendeko krisi eta erresistentzien kronikak' batu ditu **Pello Zubiria Kamino** aginagarriak 'Planeta prekarioan' liburuan.

Sorkuntza lan ezberdinak batzen dituzten bi katalogo ere badira aurtengo uztan: **Jose Luis Zumetaren** frontoi a-

tzeko muralaren 50. urtemugaren harira kaleraturikoa bat, eta bestea, **Jose Luis Elexe Pelexe**-ek Sutegin ikusgai jarritako 'Hotsez Hots 2.0' erakusketaren harira plazaraturikoa.

Beste bi liburu baita uzta oparo honetan; **Susa argitaletxeak** ateratako Jon

Alonsoren 'Carvalho Euskadin' eta David Williamsen 'Dentista deabrua'. Uzta horretan txertatua dago NOAUA! bidez egunotan jaso duzuen **Ainara Azpiazu Aduriz Axi**-ren 'Azkonar'.

Bilduma osoa asteotan izango duzue ikusgai Sutegiko erakustaretoan.

edaritegia BORDATXO

Pintxo bereziak
Bokatak
Plater konbinatuak

*Zarionak eta
urte berri on !!*

Zubiaurrenea, 5. ☎ 943 37 10 42



egunero irekitzen dugu!

• eguneko menua (astegunetan)
• jaiegunetan: asteburuko menua

• ogitartekoak, pintxoak, razioak, oilasko errak, paellak
eramateko ere prestatzen dugu!

Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 54 43 12



- GOSARIAK
- PINTXOAK
- OGITARTEKOAK
- PLATER KONBINATUAK

**ZORIONAK ETA
URTE BERRI ON!**

Okindegia - Kafetegia



Astelehenetik larunbatera 06:00 - 21:00 / igande arratsaldetan itxita

Kale Nagusia 10, 20170 Usurbil - 943 37 45 95



ARRANDEGIA PELLO

EGIN ZURE ESKAERAK
WHATSAPP-ETIK!



**ONDO PASA
GABONETANI**

ASTEARTETIK-LARUNBATERA 8:30-13:30
650 31 31 91 PUNTAPAX 7, USURBIL



*Ēguberri zoriontsuak opa
dizkizuegu!*

Kale Nagusia 10, USURBIL
Tel. 943 36 11 82

‘KARPETA URDINAK’ DOKUMENTALA SUTEGIN

Tortura hizpide duen “Karpeta urdinak” dokumentala proiektatuko du Aitzaga elkarteak abenduaren 28an 19:00etan hasita Sutegiko auditorioan.

Ander Iriarte oiartzuarrak zuzenduriko ikus-entzunezkoan, zuzendariak berak “beste askok bezala, aitak komisarian jasan zuena tortura izan zela susmatzen du. Bere ustea argitu nahian, Eusko Jaur-laritzak Bake eta Bizikidetzeta Plana-ren barruan egindako *Proyecto de investigación de la tortura y malos tratos en el*

País Vasco entre 1960-2014 ezagutuko du. Ikerketa honek argitaratzen dituen emaitzekin ikaratuta, proiektuan parte hartu zuten mediku, psikologo, psikiatra eta abokatuekin elkartuko da. Haiek erakutsiko diote tortura psikologikoa, Istanbulgo Protokoloa edo hurbilketa estatistikoa bezalako kontzeptuak, ipar globaleko torturaren errealitatea ezagutaraziz”. Proiektioaren ostean, zuzendariarekin berarekin solasaldia iragarri du 2024an 30 urte beteko dituen Aitzaga elkarteak. Proiektu honi buruzko informazio gehiago karpetaur-dinak.eus atarian jaso dezakezue.



Ander Iriartek (ezkerrekoa) zuzendutako filma da.

Tel.: +34 943 36 32 90
www.autocares-aizpurua.es

Zorionak eta Urte Berri on!

**Zorionak eta
urte berri on!**



ANDATZA TABERNA

**Gabonetako jakiak prestatzen
ditugu eramateko!**

Arrain zopa, piper beteak,
kroketak, legatz pastela e.a.

·Eguneko menua ·Ogitartekoak
·Razioak ·Plater konbinatuak

"Matia-Egurtzegi egoitza"

Kalezar auzoa 12, 943 73 20 27



Patrienea Jatetxea
Bazkariak, astelehenetik igandera
Afariak, ostirala eta larunbata

Patri



kale nagusia 14. **USURBIL**
t 943 362 725 - 688 690 361

AR-DESIGN

**AUTO-TAILERRA · AUTOEN KONPONKETA
·MEKANIKA · MARKA GUZTIAK · PRE-ITV · GURPILAK**

**·KAMPER FURGONETA ETA AUTOKARABANETZAKO
OSAGARRIAK ETA INSTALAZIOAK
·ZURE FURGONETA KAMPER BIHURTZEKO
AHOLKULARITZA, OSAGARRIAK ETA INSTALAZIOAK**



633 12 44 00



OSINALDE POLIGONOA Ondarzulo, 11 USURBIL info@ar-design.eus www.ar-design.eus

KONTSUMO EREDUAZ HAUSNARTZEKO TOPAKETAK

Gabonak kontsumismoa edo tradizioa? galdera honen jiran, egungo kontsumo ereduaz hizpide izango duten topaketak antolatu dituzte Usurbilgo gazte mugimenduko eragileek lan-kidetzan; hau da, Ernai gazte antolakundeak, Aztarrika gazte asanbladak eta Kafe Tertulia Usurbilgo Neska* Gazteen Talde Feministak.

Salerosketa masiboko egunon bueltan, indarrean dugun kontsumo moduz hausnartu nahi dute eta horri lotuta antolatu dute ekimen sorta abenduaren 23tik 26ra, “gabonak gazte mugimendurekin! Herrian ekoitzia” aldarripean.

Hasteko, bigarren eskuko azoka iragarri dute larunbaterako; erosi eta bota orde, hainbat gai utzi, hartu, trukatu eta berrerabiltzeko. Horretarako biltzen aritu dira egunotan Sutegiko erakustaretoan liburuak, diskak, arropa, osagarriak edota oinetakoak. Jasotakoa ikusgai jarriko dute abenduaren 23ko AztarriTruk bigarren eskuko azokan. Bilketan parte hartu dutenez gain, herrikide oro gerturatu ahalko da gazte mugimenduak frontoian egokituko duen gunera, dagoen eskaintza ikusi eta gustuko zerbait aurkituz gero, dagoena hartzera.

Kontzientziaziorako

Egungo kontsumo ereduak duen eraginaz pentsarazi nahi digute ekimen honekin. “Helduek gehien jasotzen dituzten opariak arropa eta oinetakoak dira. Arropa, oinetakoak eta etxerako ehun-gaiak dira ura kutsatzeko arduradun nagusiak, eta berotegi-efektuko gas-isuri handiak sortzen dituzte”. Hainbat datu plazaratu dituzte. Esaterako, “kamiseta berri bat egiteko 2.700 litro ur gastatzen dira. Pertsona batek bi urte eta erdian edaten duen ur kantitatea”. Ez hori bakarrik. “Urtean 92 milioi tona ehun-hondakin sortzen dira. Europar batek batz best 11 kilo arropa botatzen ditu urtero”.



AztarriKant kantu-jira antolatu dute abenduaren 24rako.

Soinean daramagun arropak ere zer pentsatua eman beharko ligukeela dio gazte mugimenduak. “Egun janzten dugun arroparen produkzioa: pobrezia indize altuenak dituzten herrialdeetako langileen esplotazioan oinarrituta dago. 50 milioi pertsona inguru dira esplotazio honen biktima, %80a emakumezkoak eta %12 haurrak”.

Jazten ez dugun arroparik bada baita. “Zer gertatzen da saldu ez den arroparen? Deadstockean amaitzen dute. Horrek arropak zabortegietan amaitzeaz gain, prozesuan erabilitako materialak alferrik xahutzea dakar. Iaz 44 milioi tona arropak Atacamako basamortuan amaitu zuen”.

Trukea eta berrerabilera sustatu nahi dute horregatik hilaren 23ko azokaren bidez, saldu, erosi eta bota logikatik aldentzeko eta egungo kontsumo ereduaz auzitan jartzeko. Azokaz gain, hilaren 26rako jardunaldi eguna iragarri dute; batetik, gai honetan gabonen testuinguruan ditugun rolez arituko dira zaintza hizpide izango duten goiz partean; egungo kontsumo modua ertz ezberdinetatik aztertu nahi dute arratsaldean. Eguna herriko musikariekin agurtuko dute. Musika aipatuta, euskal kantuen bira iragarri dute Mari Domingi eta Olentzero datozen igande honetarako.

USURBILGO GAZTE MUGIMENDUAREN TOPAKETAK

Abenduak 23, larunbata

■ 11:00-14:00 AztarriTruk bigarren eskuko azoka Usurbilgo frontoian.

Abenduak 24, igandea

■ 17:30 AztarriKant kantu-jira herrian barrena Olentzerorekin Dema plazan.

Abenduak 26, asteartea

■ 11:30 Kafe Tertuliak antolaturiko “gabonetan ere norik zaintzen gaitu?” hausnarketa saioa Potxoenean.

■ 17:00 “Kontsumismoaren hamaika aurpegi: larrialdi klimatikoa eta pobrezia aztergai” mahaingurua Potxoenean.

■ 20:00 Kontzertuak Aitzaga aurrean: Txiskeroak, Anuk eta Elene.

Antolatzaileak: Aztarrika Usurbilgo Gazte Asanblada, Kafe Tertulia Usurbilgo Neska* Gazte Feministen Taldea, Usurbilgo Ernai.

Ondo pasa
Gabonetan!



Iturraldebotika

Tomas Iturralde botika

33/22 P.E.Z.

Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua Dermofarmazia
Produktu homeopaticoak Maisu formulak



Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

www.iturraldebotika.com

INTZA

ILEA PAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA



Gabonetako
opari txartelak

www.secretosdelagua.com



secretos
del agua

Zorionak eta
urte berri on!



Eguerdiaren irekita! Nagusia 8, Usurbil - Tel: 943 36 36 41

NOAUA! BABESTEAK SASKIA DAKAR



Maria Angeles Udabe Borda, bazkideen artean zozketatutako saskiarekin.



Publizitatea jartzen dutenen arteko saskia Ane ileapaindegiari egokitu zaio.

Urtero legez, bazkideen eta publizitatea jartzen duten bezeroen ahalegina eskertu nahi izan dugu.

Iaz Errigorako saskiak zozketatu genituen NOAUA! Kultur Elkarteko bazkideen artean eta NOAUA! aldizkarian publizitatea jartzen dutenen artean. Honakoan, gabonetako ohiko saskiaren formula berreskuratu dugu.

Ezinbesteko ekarpena

NOAUA! tokiko hedabidearen finantzazio-iturri nagusiak hiru dira: dirulaguntza publikoak, NOAUA! Kultur Elkarteko bazkideen ekarpena eta publizitate salmenta. Erredakzioko nahiz kultur elkarteko egitasmo guztiak aurrera eramateko garaian, ezinbestekoak dira hiru babesletzak.

Bazkideen arteko zozketa

NOAUA!ko bazkideen arteko zozketan, Maria Angeles Udabe Borda izan da aurtengo saritua.

Publizitatea jartzen dutenen artekoa

Publizitate arloko bezeroen artean egin dugun zozketan, Ane ileapaindegiari izan da zorionekoa.



ATXEGA JATETXEKO LAN TALDEAK JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE!
urtarrilaren 5ean berriro-zuen zerbitzura!



•EGUNEKO MENUA: (asteleheneretik ostiralera) •EGUNEKO PLATERA
• ASTEBURUKO MENUA • KARTA • RAZIOAK • OGITARTEKOAK • PINTXOAK..

Zumartegi poligonoa, USURBIL 943 371 150

Rafa

iturgindegia



- Iturgin lan orokorrak
- Dutzako manparak
- Konfidantzazko gremioak
- Komuneko altzariak

670 98 68 48

Borda berri kalea 1, behea USURBIL

KAMDEN

hizkuntzak

English courses

Merry Christmas to all!!

See you in January

Ondo pasa Gabonak!!

Ordutegia:

16:00-20:00

informa zaitetz!

Zubiaurrenea 6 • Tlf 646 94 58 17
www.kamdenhizkuntzak.com

ZENDOIAENEA

taberna

*Ondo pasa
Gabonetan!*



NAGUSIA 35, USURBIL

NOAUA! GEHIGARRI BEREZIA izerdi patsetan

TIPI-TAPA, HERRIKO MERKATARI ETA OSTALARIEN ALDE

Herri merkataritzaren eta ostalaritzaren alde lasterka eginez urtea festa giro alai eta aldarrikatzailean agurtzeko gonbita egin digu aurtengoan ere Hurbilago elkarteak. Sektoreotako saltoki gehienak biltzen dituen Usurbilgo Kaxkoko eremuari bi itzuli emanez, herriko ostalariaren eta merkatarien bilgunearen izena daraman San Silbestre Herri Lasterketa antolatu dute abenduaren 31rako. Arratsaldeko 17:00etan abiatuko da frontoitik. Aipatu moduan, bi itzuli emango zaizkio herriko merkatalguneari. Hainbat



Abenduaren 31n, arratsaldeko 17:00etan hasiko da San Silbestre Herri Lasterketa.

opari zozketatuko dituzte partehartzaileen artean lasterketa amaitu berrikan. Hitzor-

durako izena doan eman ahalko duzue asteotan, gertuago.eus atarian.



Neguko Jaietako Erskaintza Berezia

Eramateko

TXANGURROZ BETERIKO PIPERRAK	8,00 € (3 UNIT.)
URDAIAZPIKO KROKETAK	8,00 € (8 UNIT.)
ARRAI ZOPA TXIRLEKIN (450ML)	6,00 € PERTSONAKO
BAKAILAOA SALTSA BERDEAN	9,50 € PERTSONAKO
TXEKOR MASAILAK (180G)	12,50 € PERTSONAKO

ABENDUAK 20TIK . URTARRILAK 8RA



ARTZABAL
BASERRIA · JAIETXEA

943 36 91 39

Zorionak eta
urte berri on!



ALKARTASUNA
Usurbilgo Baseritarren Kooperatiba

ERRAUSKETARIK EZ
LURRA BASERRIA HERRIA
BIZIRIK

Rtallu industrialdea 26 ☎ 943 361 114
alkartasuna@usurbil.com www.alkartasuna.eus

antenas
Telemar

ATEZAIN EDO BIDEOATEZAIN DIGITALAK
OBRARIK GABE!



6855 zenb. telekomunikabide erregistroan
elkano kalea 13 HERNANI 943 55 33 99 - 629 12 13 55

Uraitz, s.l.



Igeltseritza
Orokorra

ONDO PASA GABONETAN!

Telefonoa

693 05 93 92

Geltoki Kalea N° 15 Behea LASARTE-ORIA

uraitz@uraitz.com

IRISASI BTT HOTZAK AKABATZEN

Iaz 500 lagunentzako lekua zegoen eta gehienezko kopurura heldu zen partaideen zenbatekoa. Aurtengorako, izen-emateko epea azaroaren 3an ireki zuten eta datozen asteotan ere zabalik segiko du. Hamabigarren Irisasi BTT Hotzak Akabatzen probari buruz ari gara. Datorren edizioa, urtarrileko azken igandean, hilaren 28an egingo da.

Bizikleta gainean Andatzako itzulia egin ahalko dute partaideek. Aurreko edizioekiko aldaketarik ez bada, hiru ibilbide osatzeko aukera izaten da ekimen honetan; motza, ertaina eta luzea. Izen-emateak zabalik segiko du asteotan, kronoak.com atarian.



Proba urrarrilaren 28an izango da baina dagoeneko izen-ematea zabalik da kronoak.com atarian.

TXIRIBOGA TABERNA

Ondo pasa
Gabonetan!

GABONETARAKO ESKARI BEREZIAK PRESTATZEN DITUGU!

- Arrai zopa · Txipiroiez betetako pikilo piperrak
- Txipiroiak (pelaio erara)
- Kroketak (urdaiazpiko eta onddoenak)
- Legatza saltsa berdean · Bakaioa (bizkaitar erara)
- Txekor masailak · Arkumea saltsan
- Etxeko Foie "Mi cuit-a"

eta berezitasun gehiago!!! galdeiguzu eta egin zure eskaera!!!

(31 eta 1erako eskaerak 26rako beranduenez)

943 21 88 40 IRAZU KALEA 6, USURBIL



*Abenduaren 24 ,25 eta 31 eta urtarrilaren 1ean itxita
ondo hasi 2024 urtea!
eta zatoz gure aurtengo sagardoa dastatzera!!*

txinparta
SAGARDOTEGIA

Eguneko menuak, pintxoak, ogitartekoak, razioak
Illarra Berri, 2 (Igara) DONOSTIA 943 22 47 00

HURBILAGO, HERRI BIZITZA ARGIZTATZEKO PREST

650 Usurbil Bizi gabonetako otarren zozketa abenduaren hasieran jarri zen martxan. Hurbilagoko Udazken Azokaren biharamunean, zehatzago esanda. Abenduaren 30era bitartean, herriko dendetan egiten diren erosketen bidez eskuratu ahal izango dira otarra irabazteko zozketarako txartelak. Eta abenduaren 31n banatuko dira otarrak, eguerdiko 13:00ean herriko frontoian egingo den ekitaldi batean.

Iratxe Begiristain udal zinegotziak Udazkeneko Azokan azaldu zuen moduan, “650 Usurbil Bizi otarrek bi helburu nagusi dituzte. Batetik, herriko ekoizle eta kultur sortzaileen lana ezagutaraztea. Eta bestetik, herriko dendetan erostea bultzatzea”.

Azaroaren hasieran egin zuten aurtengo otarretan parte hartzeko deialdia, eta erantzun ona izan zuen. Guztira, herriko 29 sortzaile eta ekoizleren lanak eskuratu ahal izango dira, eta Hurbilagoko 17 dendak parte hartu dute ekimen honetan.

Saltoki bakoitzean lauzpabost otar eder
Aurtengo otarraren aurkezpenean Juanjo Allur Hurbilagoko ordezkariak adierazi zuen bezalaxe, “Usurbilgo sortzaileen, ekoizleen eta produktoreen” erakusgarri da 650 Usurbil Bizi otarra. “Musikariak, idazleak, baserritarak, sagardogileak, kultur-gileak... Ekoizle horien guztien lanare-



Herriko kultur sortzaileen uzta, jakiak, sagardoa... Guztira 100 otar zozketatuko dituzte.

‘650 USURBIL BIZI’ OTARRAK

“100 otar zozketatuko dira herriko 17 saltokitan. Zozketarako txartelak abenduaren 30era arte banatuko dira”

kin osatuko ditugu 100 otar eder. Zozketa dagoeneko martxan da eta saltoki bakoitzak lauzpabost otar eder banatuko ditu”.

Udala eta Hurbilagorekin batera, Usurbilgo Kulturgunea ere bada otar hauen sustatzailea. Jontxu Martinez Zarrabeitia

Kulturguneko kidearen ustez, “ekimen honetan Usurbilgo 29 sortzailek eta ekoizle hartu dute parte. 19 kultur sortzaile ezberdinen lanak daude hemen. Horiekin batera, 10 ekoizleren produktuak batuko ditugu. Jakiz eta sagardoz hornituko dituzte gure otarrak. Eskaintza zoragarria da eta otar hauek lortu nahi badituzue, pasa Hurbilagoko denda eta establezimendu ezberdinetatik eta bertan zozketan parte hartzeko aukera izango duzue. Beraz, ez galdu aukera eta zorte on guztioi!”. Saltokietan txartelak eskuratzeko garaia da. Abenduaren 30ean jakingo da zoriak nora jo duen.

2023KO OTARRETAKO EKOIZLEAK ETA SORTZAILEAK

2023ko otarretako ekoizleak eta sortzaileak:

Jurgi Fuentes, adarrak; Elhuyar Aldizkaria; Andoni Arzallus, txalaparta makilak; Osto eta Ale CDa; Jakoba Errekondoren Ilargia eta landareak 2024 egutegia; Mainer Alzaga, jantziak; Rukula taldearen CDa; Yolanda Arrieta: Mari Gonagorri eta hamazazpi berri liburua; Usurbilgo Sagastia: sagar dultzea; Viafara eta

Ameba taldeen CDak; Ione Iruretagoiena, jantziak; Ixabel Agirresaroberen ipuinak; Joseba Tapiaren CDak; Saizar; Aialde Berri; Neonaren CDa; Mihise taldearen CDa; Odolaren Mintzoa taldearen CDa; Iñorkinak taldearen CDa; Arrillaga Txiki base-rria; Mimos koadernaketa; Arkaitz Portularrume, barazkiak; Edorta Agirrerren liburua; Sari frutak; Basatxerri; Lumagorri; Iruin; Urdaira.

Zozketan parte hartzen ari diren Hurbilagoko dendak:

Aizpurua okindegia; Alkartasuna kooperatiba; Ane ileapaindegia; Arruti harategia; Artzabal; Enar estetika; Esnaola janari denda; Intza ileapaindegia; Iratze natur denda; Laukote; Laurok; Lizardi liburu denda; Lurda; Ni ileapaindegia; Opil goxo; Otargoxo; Usurbil Optika.

Aguirrezabal Estankoa

Zorionak
eta urte berri on!

kale Nagusia, 27.

☎ 943 361 110



*i l e a
p a i n d e g i*

mistoa

GOLDWELL
ELUMEN

Azkeneko produktu eta teknikak!

Zorionak eta urte berri on!

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951

ARANKA BERRIKUNTZAK

- Fatxaden estaldurak ·Estalkien berriztatzeak
- Barruko berrikuntzak ·Gremioen koordinaketa
- Igeltseritza orokorra

Tel: 606 37 21 05 info@arankaberrikuntzak.com USURBIL

SAREK BILBOKO MANIFESTAZIORA JOATEKO AUTOBUSA ANTOLATU DU

A benduaren 29arekin egokitu da hilabeteko azken ostirala eta, halakoetan egiten duten moduan, Mikel Laboa plazan elkarteko deia luzatu du Usurbilgo Sarek. Bide batez, 'Konponbiderako giltzak' manifestuarekin bat egin dutenekin "argazki bat aterako dugu", Saretik aditzera eman dutenez. Ez da Sarek egin duen deialdi bakarra. Urtarrilaren 13rako manifestazioa iragarri due Bilbon.

Bilboko manifestaziora joateko autobusa antolatu dute

Euskal presoen eskubideen aldeko manifestazioa La Casillatik abiatuko da, arratsaldeko 17:00etan. Usurbilgo Sarek ere bat egin du urtarrilaren 13ko deialdiarekin. Aurreko astean NOAUA!ri eskainitako elkarrizketan adierazi ziguten moduan, "autobusa antolatuko dugu eta betiko tokietan izango da izena emateko aukera".



"Betiko tokietan izango da izena emateko aukera".

noaúa



Askorako eman dute 25 urtek. 1996. urtean usurbildar askoren inplikazioari esker izugarritzko bultzada izan zuen Noaúa Kultur Elkartearen sorrerak.

Herria Herritik egiteko bultzada jaio zen usurbildarren bihotzetik eta eskuz esku mantendu da indar hau denbora guzti honetan zehar.

HARTUKO DUZU ERRONKA? EGIN BAZKIDE!

Zurekin batera beste 25 urte (gutxienez) Herria Herritik egiten jarraitzeko erronkan parte hartzera animatu nahi zaitugu.

**40€
URTEAN**

30 urte baino gutxiago dituzu?
Bazkide izatea erraztu nahi dizugul!

25 € / URTEAN*

* 30 urte betetzean automatikoki bazkidetzaren arrunta izatera pasako da.

ABANTAILAK

Abantaila nagusia herriarentzat izango da. Noaúa Kultur Elkartea eragile garrantzitsua da herriko bizitza kulturala, aisialdikoak, etabar bizirik mantentzeko. Baina zuk ere abantaila batzuk izango dituzu:

- Zozketak.
- Deskontuak kultur ekimenetako sarreretan.
- Datorren urteko errenta aitortpenen hoberia jasoko duzu.
- Usurbildik kanpora bizi diren herritarrei, aldizkaria astero posta arruntez jaso aukera.

3 modu dituzu bazkide egiteko:



Bete beheko inprimakia eta bulegora ekarri



Webgunearen bidez
noaúa.eu/bazkidetu



Telefonoz
943 360 321

Izena

Abizenak

Nortasun agiria

Helbidea

Herria

Posta kodea

Telefonia

Posta elektronikoa

Kontu zenbakia (IBAN)

Bazkidetzaren mota

Arrunta (40 €)

<30 urte (25 €)

Jaiotze data

Elexpe
de apaindegia

Zorionak!

Betileen tintaketa
eta permanentea

Estetika • Tatuaiak

Zutikako eta
etzandako
Solariuma

Muna Lurra 12 • © 943 370 462

ITZIRA
ERAIKUNTZAK

Zorionak eta urte berri on!

943 530 337
607 119 313

- gremioen koordinaketa
- berritze lanak
- sukaldeak
- komunak
- mota guztietako obrak
- aurrekontua konpromisorik gabe

errekatziki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

txirriStra
TABERNA

Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Pintxoak
Etxeko hanburgesak

Zorionak eta urte berri on!

Kontseju zaharra, Telf: 943 36 04 66

MIKEL
ARRANDEGIA

MIKEL ARRANDEGIA

Zorionak eta urte berri on!

San Inazio, 1 • © 943 366 356

EUSKARAZKO FILMA, OPORREN AMAIERAN

U surbilgo Udalak eta Ziortzak haurrei zuzenduriko euskarazko filmak eskaintzen dituzte negu partean. Datorren proiektzioa urtarrilaren 7rako iragarri dute. Ohi bezala, arratsaldeko 17:00etan hasita Sutegiko auditorioan. 'Rabbit Academy: pazko arrautzen lapurreta handia' izango da eskainiko duten filma.

Sinopsia: "Untxien eskolan, Pazko eguna izateko zorian da eta urrezko arrautza magikoak erabakiko du nortzuk izango diren "untxi lider" berriak. Max aukeratu ondoren, urre koloreko arrautza beltz bihurtzen da".

Sarrerak: Aldez aurretik eskuratu ahaliko dira, hiru euroren truke, usurbilkultura.eus plataforman.



Urtarrilaren 7an 'Rabbit Academy: Pazko arrautzen lapurreta handia' eskainiko dute Sutegin.



Zorionak eta urte
berri on!!




pikabea
ASEGURU ARTEKARITZA

Telf: 943 37 11 18 Mugikorra: 672 23 83 01 

pikabea@pikabea.eus <https://pikabea.eus/>

Uzturre Plaza, 8 Lasarte-Oria J-0078EUS



“Izarren hautsa egun batean
bilakatu zen bizigai,
hauts hartatikan uste gabean
noizpait giñaden gu ernai.
Eta horrela bizitzen gera
sortuz ta sortuz gure aukera
atsedenik hartu gabe:
Iana eginaz goaz aurrera
kate horretan denok batera
gogorki loturik gaude.”

Xabier Lete

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON



Abenduak 20, asteazkena

- Goiz partean, Udarregi ikastolako ikasleen kantu saioak.
 - 18:00 Urteko azken ezohiko osoko bilkura.
- Deitzailea: Usurbilgo Udala.

Abenduak 21, osteguna

- Goizean, Aginagako eskolako kideak kantuan irtengo dira.
 - 18:30 San Tomas eguneko txistorra-banaketa Santuenea 12aren atarian.
- Antolatzailea: Santuenea elkarte.

Abenduak 22, ostirala

- Goizean zehar, Zubietako eskolako emanaldia.
 - 18:30 Ziortzakoen San Tomaseko ospakizuna Askatasuna plazan.
 - 19:00 “Gazte, arraro, errebelde”: Iñurri (Min)Biziaren aurkako podcastaren aurkezpena Sutegiko auditorioan.
- Antolatzailea: Iñurri (Min)Biziaren aurkako elkarte.

Abenduak 23, larunbata

- 11:00-14:00 AztarriTruk, bigarren eskuko azoka frontoian.
- Antolatzailea: Usurbilgo gazte mugimendua.
- 18:00 Olentzero eta Mari Domingiren etorrera Aginagara, Sekaña eta Mitxerko-neko gurutzetatik behera. Ondoren, gutun bilketa Eliza Zaharrean.

Abenduak 24, igandea

- 17:00 Olentzero eta Mari Domingiren etorrera Kalezartik.
 - 18:00ak aldera, plazan ekitaldia eta argazkia ateratzeko aukera biekin.
 - 17:30 AztarriKant kantu-jira herrian barrena Olentzerorekin Dema plazan.
- Antolatzailea: Usurbilgo gazte mugimendua.

Abenduak 26, asteartea

- 11:30 Kafe Tertuliak antolaturiko “gabonetan ere nork zaintzen gaitu?” haus-

narketa saioa Potxoenean.

- 17:00 “Kontsumismoaren hamaika aurpegi: larrialdi klimatikoa eta pobrezia aztergai” mahaingurua Potxoenean.
 - 20:00 Kontzertuak Aitzaga aurrean: Txiskeroak, Anuk eta Elene.
- Antolatzailea: Usurbilgo gazte mugimendua.

Abenduak 26/28

- 11:00-13:00 / 16:30-19:30 Gabonetako Haur Parkea Oiardo kiroldegian, 2-12 urte artekoentzat.
- Antolatzailea: Udala.

Abenduak 28, osteguna

- 16:00-21:00 Gaztelekutik Txuri Urdinera irteera. Antolatzailea: Gaztelekua.
 - 19:00 “Karpeta Urdinak” dokumentalaren proiektzioa Sutegiko auditorioan. Ondoren, zuzendariarekin solasaldia.
- Antolatzailea: Aitzaga Kultur Elkarte.

Abenduak 29, ostirala

- Egunean zehar, Mirotzen omenezko infantilen arteko eskubaloi txapelketa Oiar-don. Antolatzailea: Usurbil K.E.
- 20:00 Sareren urteko azken elkarretaratzea Mikel Laboa plazan: giltzen herri argazkia. Deitzailea: Usurbilgo Sare.

Abenduak 30, larunbata

- 650 Usurbil Bizi otarren zozketa egitasmoan parte hartu duten saltokietan. Egun horretara arte eskuratu ahalko dira zozketarako txartelak aipatu denda hauetan.

Abenduak 31, igandea

- 13:00 “650 Usurbil Bizi” otarren banaketa ekitaldia frontoian. Antolatzaileak: Usurbilgo Udala, Kulturgunea eta Hurbilago elkarte.
 - 17:00 Hurbilago San Silbestre herri lasterketa.
- Antolatzailea: Hurbilago elkarte.

Urtarrilak 1, astelehena

- 01:00 Urtezahar Gaua: IñakiMusik DJ-a

frontoian. Antolatzailea: Udala.

Urtarrilak 4, osteguna

- 16:00-21:00 Gaztelekutik Txuri Urdinera irteera. Antolatzailea: Gaztelekua.

Urtarrilak 5, ostirala

- Erregeen kabalgata. Antolatzailea: Ziortza gazte elkarte.

Urtarrilak 7, igandea

- 17:00 Haurrentzako euskarazko zine zikloa Sutegin: “Rabbit Academy: pazko arrautzen lapurreta handia”. Sarrerak usurbilkultura.eus plataforman eskuragarri.
- Antolatzaileak: Usurbilgo Udala, Ziortza gazte elkarte.

Urtarrilaren 8ra arte

- Usurbilgo 2023ko sorkuntza uztaeren erakusketa Sutegin.
- Antolatzaileak: Sutegi udal liburutegia eta NOAUA! Kultur Elkarte.

Urtarrilak 13, larunbata

- 17:00 Sarek deitutako manifestazioa Bilboko La Casillatik. Autobus zerbitzua Usurbildik. Izen-ematea aurrez ohiko tokietan.
- Antolatzailea: Usurbilgo Sare.

Urtarrilak 15, astelehena

- 16:30-20:30 Odol ematea Udarregi ikastolan.
- Antolatzailea: Usurbilgo odol-emateen elkarte.
- 18:00 Usurbilgo Euskal Kantu Taldearen ikasturte hasiera Udarregiko musika gelan.

Urtarrilaren 24ra arte

- Urtarrilaren 28ko Irisasi BTT Hotzak Akabatzen proban izen-emateko aukera kronoak.com atarian.
- Antolatzailea: Irisasi BTT.

URDAINTZI

eraikuntzak



649 43 54 75

943 36 72 64

ERAIKUNTZAK

OBRAK

BERRITZE LANAK

urdaintzi@euskalnet.net

IT-ak egiten
dira

*Ondo para
sabonetan!*

ANORGA TXIKI S.L.
KRISTALDEGIA

beirako itxitura sistema berria!!!
perfil bertikalik gabe!!
zure balkoia itxi nahi baduzu galdeiguzu!
aukera zabalak!

beirako itxitura
seeglass one
perfil bertikalik gabe

·komertzial instalazioak ·beira bikoitza ·segurtasun beirak ·dutxa-itxiturak eta irristailuak
·ispiluak ·barandak ·kristal mota guztiak...

*Gasuna eta askatasuna!
Urte berrí on!*



Usurbilgo Udala

